

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko otsailak 19ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Tokiko Agenda 21: adierazleen ebaluazioa eta kalkulua. 1.2. Etxeko landare-olio erabilia biltzeko zerbitzuaren kontratua; 1.3. Batzordearen bileren egutegia.
- **Abandonatutako animaliak batzeko zerbitzuaren lehiaketa:** lehiaketaren egoeraren berri eman da. Batzordeak oniritzia ematen duenean eta udalek kudeaketa-agindua bidaltzen dutenean, hasiera emango zaio kontratazio-prozedurari.
- **Hondakinen frakzio organikoa biltzeagatiko diru-laguntza:** 2014ko laguntzaren justifikazioaren ondoren, diru-laguntza eskabide berria aurkeztea dago aurreikusita.
- **Lankidetzaren hitzarmenak URArekin:** URA-Uraren Euskal Agentziaren arduradunek lankidetzaren hitzarmenerako proposamena aurkeztu dute, ibilgu eta ibaiertzen mantentze-lanak planifikatu eta hitzartzeko, eta lan horiek eskumenen arabera nola banatzen diren. Martxoaren 12ko bileran hartuko da erabakia.
- **Faktura elektrikoa optimizatzea:** proiektuaren emaitzak aurkeztu dira. Datozen egunetan dagozkion txostenak bidaliko dira udaletara.
- **Batzordearen hurrengo bilerak:**
 - Otsailak 25, asteazkena, kontratuen bateratzea.
 - Martxoak 12, osteguna, ohiko gaiak eta Smart City Estrategiaren aurkezpena.
 - Martxoak 25, asteazkena, kontratuen bateratzea.